

Ezpalak

JON TORNER

Hilaren 9an egingo da Hatortxu Rock jaialdia

BIZARDUNAK, Ken Zazpi, Boikot, Def Con Dos, Goar Cicatriz, Obrint Pas, Trikidantz eta Sociedad Alkoholika taldeek joko dute Hatortxu Rock musika jaialdiaren hamai-kagarren edizioan. Atarrabia eta Burlata artean jarriko dituzte euskal presoen aldeko jaialdia jasoko duten bi karpa erraldoiak, *entre cementerios* deitzen dioten gunean. Sarrerek 20 (aurrez erosita) eta 25 euro (egunean bertan) balio dute. Informazio gehiago: <http://hatortxurock.org>.



‘Muerte o gloria’, The Clash gogoan

DUELA 30 URTE kaleratu zuen *London Calling* diskoa The Clash taldeak. Orain, ingelesen hamazazpi kanturen bertsioak bildu ditu Erromoko (Bizkaia) Brixton Records zigiluak *Muerte o gloria* diskoan. Euskaldunak dira bilduman parte hartu duten talde gehienak: Macarrada, Akatz, Anarko & Fermin Muguruza, Vomito, Habeas Corpus, Mundo Matadero, Obligaciones...

Juan Kruz Igerabideren *Ainatze-marra* eta Aizpea Goenagaren *Arrainontzia* lanak plazaratu ditu Atenea argitaletxeak. Poesia bilduma da Igerabiderena, eta antzezlan Goenagarena. Euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu dituzte biak.

Mentxu Gal erakustaretoa irekiko dute hilaren 22an Irunen (Gipuzkoa), artistaren 30 bat koadroekin. Berrehun metro koadroko erakusketak jartzeaz gain, ikastaroak eta hitzaldiak ere antolatuko dira.



DANI BLANCO

Kutzak finantzatu du funtzionamendua, datozen bi urteetan. Gerora, Bidasoako Pintoreen Mentxu Gal Museoa egitea da Irungo Udalaren asmoa.

Jose Antonio Arana euskaltzainak bere liburutegian pilatutako materiala katalogo batean bildu du Euskaltzaindiak, *Jose Antonio Aranaren Biblioteka* izenburupean. Katalogoak dituen 5.657 erreferentzietatik 2.183 dira euskarazkoak. PDF formatuan ere eskuratu ahal izango da laster, Euskaltzaindiaren webgunean.

● **Joseba Irazoki musikariak Berrian:** «Ez zait birtuosismoa interesatzen, baina uste dut banaizela [barre egin du]. Gaztetan oso modu birtuosoa jotzen nuen gitarra, oso heavy zalea nintzen, baina Xabier Montoiarekin hasi nintzenean aldaketa bat gertatu zen. Alderantzizko bidaia egin behar izan nuen, zikin jotzen ikasi behar izan nuen kasik, zarata ateratzen... Ikasitakoa desikasten. (...) Birtuosismoak lagundu ahal dizu zikin jotzen, eta teknikaren arlo guztiak menperatzen badituzu jotzen ahal duzu era batera edo bestera. Musikariok arrisku hori hartzen dugu: erakutsi nahi izaten dugu dakiguna, eta beti ez da musikaren mesederako izaten».

● **Aitziber Saldias idazleak Garan, Qenna (ECU) nobelaren harira:** «Eleberri erdia edo idatzita nuenea [euskaraz], konturatu nintzen askoz ere zailagoa izango zela euskaraz zerbait argitaratzea gaztelaniaz baino, gaztelaniaz merkatu zabalagoa dagoelako, baita idazle berrientzat espresuki sortutako argitaletxeak ere. Ez dakit euskaraz horrelako argitaletxerik existitzen ote den, baina

bestela ikaragarri zaila egiten da idazle berri batentzat bere obra argitaratzea. (...) Orain, argitaratuta dagoela, konturatzen naiz euskaraz idatzi izan banu, ezagutzen dudan jende askok ezin izango zuela ulertu».

● **Txomin Peillen idazle eta ikerlariak Bizkaie! webgunean:** «Parisen, Paben eta azken aldion Baionan irakasle nabil ogibidez. (...) Polifazetikoa nazela entzutea gustora hartzen da baina, ez dakit ba...Gauza bat esango deusut: inork ez ditu inon nire lanak topetan; nire lanak aspaldikoak dira, Mitxelenan badagoz, liburutegietan badagoz, literatura arloan lau sari irabazi izan ditut, hiru eleberri handian, bat laburrean eta, barbarako, entziklopedia handi horreetako batean aitatu be ez nabe egiten euskal idazleen artean. Mugaren bat badago hor nonbait Bidasoaldean; Zikoinak itxi ninduan Parisen, han jaio nintzan eta kanpotarra naz nonbait, ez naz euskalduna... Boikotak, politika arrazoia nonbait... Gure gazte garaian ez egoan holakorik, eretxi politikoak gorabehera ez egoan arazorik eta orain, oster, sailkatua zara...».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php